

Gonzalo Moure
Maíto Panduro
Itzultzailea: Jose Antonio Sarasola
Ibaizabal, Paper Txoriak bilduma
Bilbo, 2003

Ijitoen mundu ezezaguna

Gonzalo Moure valentziar asturiastartua duela hamar bat urte ezagutu genuen gazteentzako idazle gisa, *¡A la mierda la bicicleta!* bezalako lan aldarrikatzaileak idazten zituela. Urte batzuetatik hona, berriz, beste tankera bateko literatura idazteari ekin dio, neurtuagoa, eta bere ahots propioa aurkitu duela esan genezake. Horren erakusgarri bikaina da, esaterako, *El síndrome de Mozart* gazte eleberria, Gran Angular saria 2003an.

Hain zuzen ere, Ibaizabal argitaletxeak dakarkigun obra hau ere sari baten ondorio da: 2001eko Ala Delta izenekoa. Garbi dago obra honetan lantzen hasitako bideari etekin ederra ateratzen jakin duela egileak, gai zein teknika narratiboaren aldetik.

Begirada pertsonaia baztertuengan txertatzea du gustuko, eta *Maíto Panduro* honetan, goiburuan aurreratu dugun bezala, ijitoen munduari erreparatzen dio, bere ondorio guztiekin erreparatu ere. Hamar urteko protagonista, Maíto, ijitoen txabola-auzune batean bizi da, eta jantokia doan eskaintzen dion inguruko eskola batera joaten da, gogo handiegirik gabe. Zorionez, Susana izeneko maistra arduratsu batekin topo egin du, ijito jendea ulertzen saiatzen dena eta eskolan buru-belarri lanean diharduena. Zoritxarrez, aita espetxeratu egin dute, eta ez du haren berri txikienik. Susanaren laguntzarekin lehen eskutitz bat idatziko dio aitari, eta handik aurrera eskutitz eta marrazkien joan-etorria etengabekoa izango da. Eta horren bitartez zabalduko da mundua Maítoaren begiradaren aurrean, eta baita esperantza ere, zirkin gutxiko umea bada ere. Beste aldetik, egileak pentsamolde zorrotzeko andereño bat erakusten digu, eskolako umez arduratzea beste bizitzarik ez duena, itxuraz (“Post tenebras spero lucem” Atxagaren ipuin eder haren intertestua datorkigu burura, noski). Eta narrazioak ez du etenik, eta kapituluka antolatu nahi izate hutsak bakarrik eteten du noizean behin eta une batez, abiada bizian aurrera jarraitzeko, desberdintasunari buruzko gogoeta biziki poetikoak eginez, tarteka.

Ume irakurleari errealitate gordinaren berri ematen dio liburuak, umearen kontzientzia postmodernoa kalitatezko literaturaren bidez asaldatuz eta irauliz, “zer egingo nuke nik aita espetxean izango banu?” bezalakoak bere buruari galdearaziz. Arraza askotako umeak eskoletara etortzen hasi diren garai honetan, beti hor izan ditugun ijitoak zenbateraino ahaztu ditugun pentsatzeko bidea ere ematen digu testu interesgarriak.

Manu Lopez Gaseni